

MAIATZAREN HAMABIAN

Doinua: "Jainkoaren izenean"

1

Aurrera doa bi mila eta
hamabigarren urtea
Mendeurrena zabaldu zala
Gabiriako Etxea.
Jaunak, hamaika garratz ta
gozoz
beteriko bitartea!
Pasiotarrok hau ospatzeko
daukagu borondatea,
gura badozu egina dozu
ospatzeko konbitea.

2

Gabiriako kabian danok
ginan bardintsu samarrak,
baina gerora bereiztu ginan
zuri, gorri ta nabarrak...
Danok banandu ginduzan penaz
munduan bizi beharrak;
baina barriro hemen gara gu
aintxinako lagunzaharrak,
alkarrekin gaur esan geinkela:
"Gu gara Gabiritarrak".

3

Txalogarria Batzordearen
orain arteko jarduna,
baina behingoan kezka larri bat
guztioi sortu jakuna:
Hemen betiko amaitzen al da
kostata hasi doguna?
Geure eskuan dago, lagunok,
nahi dogun etorkizuna,
lokarri motx hau eten baino lehen
emon daigun erantzuna.

4

Mila argazki ikusi eta
nahita jarri begiz-begi,
inolaz ere ezin antz emon
ez gorputz ta ez arpegi.
Lehen umeak ta gaur aita-aititak,
guzur ez bada, egi;
Zenbat argazki, zenbat zerrenda,
askoren ustez gehiegi;
martxa onean dagoz oraindik
Urteaga ta lantegi.

5

Hainbeste urte ibili gara
mundurik mundu bakarka,
baina ez jaku inori galdu
Gabiriako plusmarka.
Zorioneko Mendeurrenez
hasi jakuz deadarka.
Ez jakinean gelditu bada
inor deitu barik, parka!
"Gabiritarrak" anaiak gara
alkar dagigun besarka.

6

Maiatz hilaren hamabia da
grinaz itxaron doguna,
Gabiriako Ikastetxeak
danoi eskeintzen deuskuna:
Hasi zanetik Mendeurrena
dalako ospakizuna;
han egondako guztiok emon
behar dogu erantzuna,
anaiartean ospatu daigun
"GABIRITARRON EGUNA".



A. Martzel